

Bidebieta



Baloia eta futbolariak besterik ez dira falta

Amaitzeaz dira Jasonebaso futbol zelaiko lanak. Ondo bidean, aste-bete barru hasiko dira taldeak bertan entrenatzen eta jokatzeko.

Jasonebaso futbol zelaiaren hartxintxa kendu eta belar artifiziala jarri dute. Horrez gain, harmailak jarri, aparkalekua egokitu eta aldagelak berritu dituzte. Jokalariak ez ezik, ikusleek ere berrikuntzak atzemango dituzte. Izan ere, lanak egin aurretik ez zegoen inolako aterperik, ezta egungoa bezain aparkaleku zabala ere.

Euria oztopo

Azken egun euritsuek atzerapenak eragin dituzte lanetan. Belar gainean harea botatzea ezinbestekoa da, eta euriarekin oso lan zaila da harea botatzea, pikorrak sortzen baitira belarrean. Daniel Canales

udal teknikariak belar artifizialaren gainean hondarra botatzearen garrantziaren zergatia azaldu digu: *"Batetik, belarra mugitu ez dadin lortzen da harea botata. Bestetik, hareari esker, zoruak askoz ere bigunago geratzen da, jokalariek erorikoetan min har ez dezaten. Hirugarrenik, hareak ura belarraren goialdean ez pilatzea ahalbidetzen du".*

Araozak arazo, hemendik astebetetera, taldeak Jasonebasoan jokatzeko hasiko dira. Kiro-

letako Udal Patronatuak azaldu digunez, Lengokoak-ek, In-txaurdik, Zurriola ikastolak, English School-ek eta La Asuncion ikastetxeko Izukaitz kirol elkarteak eskatu dute Jasonebasoan jokatzeko eta litekeena da guztientzat lekua izatea. Lengokoak klubeko lagunek aurreratu digutenez, baliteke hilabete batzuk barru Trintxerpeko talde batek ere Jasonebasoan jokatzeko. Talde honek egun Molinaon jokatzeko du, baina futbol zelai hori botatu egin behar dute.

Atzerapenekin kezkatuta

Maiatza hasieran obrak hasi zirenetik hona, ika-mika bat edo beste izan da Jasonebasoaren inguruan. Izan ere, denboraldi hasieran zelaiak prest ez zegoela ikusirik, Jasonebasoan jokatu ohi duen Lengokoak klubeko arduradunak sutan jarri ziren. Anxón Serrano presidentek gogorazi digunez, *"zin egin ziguten futbol zelaiak denboraldi berrirako prest egongo zela eta ez dute bete. Taldeak sakabanaturik izan ditugu; batzuek Berrioko futbol zelaiaren entrenatu behar izan dute, beste batzuek Herreran... Egoeraren larriaz jabetuta, azkenaldian Anoetako miniestadioan aritzeko baimena eman digute".*

euskararen donostia

patronatuak



Donostia (Leizor)
Auzoak: San Sebastian

Haur zinema

- **"Alhambra giltsa"**
Juanba Berasategi (89 min.)
Urriaren 11n, 17:00etan
Lugaritz Kultur etxean

Ipuinaren ordua

- **"Kukurruku!"**
Kukurruku gure urrezko neskatxa hemen dugu.
Lamiak
Urriaren 14an, 18:00etan
Ernst Luch Amarako Kultur etxean
- **"Antzina, munduan bazen..."**
Antzina, munduan asko diren bezala bazen.
Lamiak
Urriaren 13an, 18:00etan
Inbaurrondo Berri Kultur etxean
- **"Suaren opariak"**
Ohiulari Klown
Urriaren 17an, 18:00etan
Larrotxene Kultur etxean

Ikastaroa

- **Birus informatikoak**
Teknologia berrietara gerturatzeko lantegia
Urriaren 13, 14 eta 15ean,
10:00etatik 12:00etara
Teknologia Berrien Zentroan (Altza)
tel. 902 077 800
info@edonostia.net

euskaraz.net

donostia
TANDEM

info@tandemsansebastian.com

tel: 943 425157 Gipuzkoa plaza, 2-1º

• alemaniera

maila guztiak
ordutegi guztiak

• spanish

language courses

• ikastaroak atzerian